

## KONTROL MOZIOA

### Loiolako Erriberako mugikortasuna dela eta

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2023ko abenduaren 18an Gune Publikoetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

### JUSTIFIKAZIOA

Loiolako Erribera errepidez inguratutako auzoa da, gaitasun handiko bideez inguratuta dago; alde batetik, GI-20 saihesbidea du eta bestetik, Loiolako Erriberako pasealekua. Bertan, trafikoa handia izaten da eta askotan, abiadura, behar baino handiagoa. Nahiz eta Loiolako Erriberan radarra egon, kasu askotan ez da abiadura errespetatzen.

Inguratzen duten bi errepide horiez gain, auzoa erditik zeharkatzen duen Bartzelona etorbidea dago. Hortaz, finean, auzoa trafikoz inguratua bizi da eta hori dela eta, estres akustiko handia jasaten dute bertako bizilagunek.

Bizilagunek askotan eskatu dituzte abiadura moteltzeko neurriak, baina orain arte ez da neurri eraginkorrik hartu. Egoera horrek mugikortasun arazoak sortzen ditu eta kutsadura akustikoa, bizilagunek egunero pairatu behar dutena.

Bizilagunen aspaldiko eskaera da GI-20 saihesbidean Erriberako etxebizitzaren aldean zarata murrizteko panelak jartzea. Udal Gobernuak horri buruz interpelatuta, Mugikortasun eta Garraioko zinegotziaren bidez jakin genuen Udal Gobernuak jada eskaera egin duela Gipuzkoako Foru Aldundian eta erantzunaren zain dagoela. Bestalde Udal Gobernuak Loiolako Erriberako pasealekuko

**EH Bildu talde politikoa**

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia  
Tel. 943481027 eh\_bildu@donostia.eus-- [www.donostia.ehbildu.eus](http://www.donostia.ehbildu.eus) -

eta Bartzelona hiribideko autoen sarrera eta abiadura murrizteko borondatea adierazi zuen. Dena dela, ez genuen konpromiso zehatzik ikusi hori berehalakoan gauzatzeko.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Loiolako Erriberako bizilagunek pairatzen dituzten mugikortasun arazoak eta zarata murrizteko neurriak har ditzala Bartzelona hiribidean eta Loiolako Erriberako pasealekuan.
2. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Loiolako Erriberako mugikortasun arazoak konpontzeko neurriak Loiolako Erriberako bizilagunekin parteka ditzala.

Donostian, 2023ko abenduaren 15ean

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego  
EH BILDU udal taldeko zinegotzia